

**TALDE SOZIALISTAK AURKEZTU DUEN MOZIOA, UDALAREN
TITULARTASUNeko ADINEKOENTZAKO IRUNGO AMA
XANTALEN EGOITZAREN ETA EGUNEKO ZENTROAREN
ESKUDUNTZA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK BERE GAIN
HARTZEAREN INGURUAN**

Duela gutxi **Gipuzkoako Foru Aldundiak** iragarri du datozen hilabeteotan **bere gain hartuko duela Gipuzkoako lurraldean adinekoentzako dauden hamasei udal egoitzetatik bosten eskuduntza, azpikontratazioaren bitartez kudeaketa externalizatua** egiten dutenena, alegia.

Baina, **udalaren titulartasuneko Adinekoentzako Irungo Ama Xantalen egoitza eta Eguneko Zentroa ez dago bost horien artean**, gestio zuzeneko beste hamaiken artean baizik; eta horiek eskuz aldatzeko datarik ez dago jarrita, nahiz eta foru-arduradunek adierazi duten etorkizunari begira, poliki-poliki, Gipuzkoako adinekoentzako sare osoa bere gain hartzen joateko asmoa dutela.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu **Irungo Udalak bere gain hartua daukala 2001etik hasita** aldundiari dagokion **eskuduntza hori**; eta garaiaren eta onartutako irizpideen arabera, horrek udal kontuetan eragin duen inpaktu ekonomiko negatiboa **urtean 450.000 euro eta 650.000 euro artekoa** izan dela.

Irungo Udalak osoko bilkuran ondokoa erabaki du:

Gipuzkoako Foru Aldundiari berriro esatea Ama Xantalen Egoitzaren eskuduntza bere gain hartu beharra daukala 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, dioen moduan, eta baita aurreko 155/2001 Dekretuak ere, Gizarte Zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituenak.

2) Foru Aldundiari proposatzea Aldundiko ordezkariak eta Irungo Udaleko ordezkariak osaturiko lan-talde bat sortzea, talde horrek Ama Xantalen Egoitza eta Eguneko Zentroa eskuz aldatzeko prozesu espezifiko eta negoziatua aztertu eta presta dezan, eta eskualdatze horretan bertako langileen oraingo lan-baldintzak errespetatu daitezzen.